



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023FEGO0010

DEKRETUA

Ainhoa Arrozpide Landa, Usurbilgo Udaleko alkate ordeak, 2023ko uztailaren 21eko 2023/750 dekretuaren baitan alkate funtziotan, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1.g) atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko enplegu publikorako eskaintza zenbait plaza jaso ziren, lehiaketa sistema bidez betetzeko.

Usurbilgo alkateak 2022ko abenduaren 15eko ebazpena eman zuen, horretarako zegozkion oinarriak onartu eta deialdia eginez. Deialdi hori 2022ko abenduaren 29an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2023ko martxoaren 6an Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu zen, eskabideak aurkezteko epea zabalduz.

2023ko ekainaren 2ko dekretu bidez (GAO 2022/06/12), Administrazio berezia eskalako zerbitzu bereziak azpieskalako lanbidetako pertsonal bi plaza (C2 taldea, bildutako laboralak, ileapainketako irakasleak) merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda eta autobaremazio formularioan lortutako behin behineko puntuazioa onartu eta argitaratu ziren; izangaiek, emandako epean, dagokion dokumentazioa aurkeztu zuten, eta izendatutako tribunala osatu eta batzartu ondoren, behin behineko emaitzak argitaratu ziren 2023ko uztailaren 18an Usurbilgo Udalako web orri eta iragarki taulan.

Behin behineko emaitzen aurka ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta beraz, aipatu epaimahaiak egindako proposamenean jasotako 4. puntuari jarraiki, behin behineko emaitzak behin betikotzat hartu dira.

KONTUAN HARTURIK

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak eta horietako lehenengo oinarrian jasotako araudia konatuan hartuta,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA: Administrazio berezia eskalako zerbitzu bereziak azpieskalako lanbidetako pertsonal bi plaza (C2 taldea, bildutako laboralak, ileapainketako irakasleak) merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuan izangaien behin betiko emaitzen zerrenda onartu eta argitaratzea; honako hau da:

NAN/DNI	ABIZENAK, IZENA / APELLIDOS, NOMBRE	GUZTIRA / TOTAL	Hurrenkera / orden
***5713**	ORONoz SAGARZAZU, MARIA TERESA	100,0000	1
***6706**	CERRATO DEL CAMPO, GOIKIRIA	30,6331	2



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023FEGO0010

BIGARRENA: Hautaketa prozesu honetako oinarri orokorretako 11. oinarrian ezarritakoaren arabera, destinoa aukeratzeko hautagaiei 10 egun balioduneko epea ematea, behin betiko kalifikazioa argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hauek dira eskainitako lanpostuak:

Lanpostua	Kod ea	Dedikazio mota	Ordaink eta maila	Berariazko osagarria	Sailkapen taldea, bildutako laboralak	HE	Derrigortasun data
Ileapainketako irakaslea 1. maila	11.5	LA	10	19.816,8	C2	2B	2022-10-27
Ileapainketako irakaslea 2. maila	11.7	LM %78,13	10	19.816,8	C2	2B	2022-10-27

(Lanpostuen baldintzak 2022ko abenduaren 29an GAOn argitaratua)

HIRUGARRENA: Erabaki hau Udaleko iragarki taulan eta Usurbilgo web orrian argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

Erabaki hau izapidetzako egintza kualifikatua da.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsioa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsioaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsioaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsioa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023FEGO0010

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena ordezeko alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.

ALKATEORDEA
Ainhoa Arrozpide Landa

IDAZKARIA
Garazi Etxeberria San Miguel



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUF47979e5-ff9d-473a-9a66-d443eaa9f036**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023FEGO0010-destino aukeraketa/destino aukeraketa ()